

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

KLIKASI hezkuntza-plataforma digital berritzailea da, ikasleek eta irakasleek euskarazko eduki fidagarriak, apunteak, ikasteko metodoak eta antolaketa tresnak modu errezean partekatu eta eskuratzeko sortua. Gure helburua egungo hezkuntza-sisteman dagoen hutsune nagusia betetzea da: euskarazko material egiaztatuaren falta eta ikastetxeen arteko elkarlan digital eskasa. KLIKASIk baliabide guztiak gune bakar batean biltzen ditu, webgune eta aplikazio formatuetan, erabiltzaile guztientzat eskuragarri egon daitezen eta erabiltzeko edo ikasteko prozesua erraztuz eta denboraren kudeaketa hobetuz.

Proiektuaren helburua ikasleen ikaskuntza-prozesua hobetzea da, ikasteko ohiturak eta autonomia sustatuz, eta irakasleei baliabide didaktikoak partekatzeko eta antolatzeko espazio eraginkor eta fidagarria eskainiz. Horretarako KLIKASIk ikastetxe publiko eta itunpekoen arteko lankidetzak sustatzen du, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, eta unibertsitateekin, orientatzaileekin eta teknologia-enpresa laguntzaileekin elkarlanean aritzen da edukien kalitatea, segurtasuna eta jasangarritasuna bermatzeko. Harpidetza-eredu inklusibo bati esker, plataforma eskuragarria da ikastetxeentzat zein banaka ikasten duten ikasleentzat, eta komunitate osoarentzat diseinatutako irtenbide moderno, partekatu eta euskarazkoa bihurtzen da.